

Goierri tarra

361. zenbakia 2009ko maiatzak 22



AZKEN 30 URTEKO ORDIZIAKO
ERRUGBI ZELAIK EMAN DU BERA

AGUR TREVIJANO



VIAJES
ABIO

BIDAIK

1999 2009

Kale Nagusia, 38 Beasain | T 943 80 53 11 | F 943 80 56 42 | abio@abio.es

berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
 Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
 Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
 Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
 Tel.: 943 653 307
 Tel. / Fax: 943 650 520
 E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
 Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
 Fax: 943 675 421
 E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

udaberria - uda 2009

Goierritarra



moda - edertasuna



gehigarria erdiko orrialdeetan

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetza: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Dionisio Amundarain.

5. Ingurugiro txokoa: Iraganeko itsas mailaren aldaketak (eta II)

6. Euskara txukuntzen: Denetik (XX)

8. Elkarrizketa: Legorretako adin txikikoen zentroa. Kezkak itxaropenari egin dio bidea.

13. Kirola: Agur Trevijano. Maiatzaren 31n 1979tik hona Ordiziako errugbi zelaia izan denari agur esango zaio.

18. Elkarrizketa: Andoni Aizpuru, iraupen luzeko kirol zalea. Lehenengo aldiz Zegama-Aizkorri mendi maratoin parte hartuko du gabiriarrak.

8



13



18



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística

Ogia eta jokoa

Valentziako partiduen bezpera-egun-biharamun giroan, hainbat laguni eskaner bikoitza egiteko aukera izan dut. Xedea, aipatu gertakeria-fenomeno horren inguruko iritzia ateratzea. Zergatik eskaner bikoitza? Plazaratutako emaitza sinesgarriagoa gerta dadin. Zeren berehala sumatu baitut lagun bakoitzaren iritzia ez dela alde bakarrekoa, baizik bikoa, gutxienez. Hona, beraz, eskanerrak eman didana.

GORKA. Buru-belarri saiatu naiz Euskal Herriko jendeari Athleticen ingurura eta mundura eragiten. Bizi dugun ekonomia krisialdian jendeari eragin beharra dugu gastatzera eta gastatzera, eta zoro-zoro gastatzera gainera. Hori dugu helburu Madrilgo Parlamentu inguruan gabiltzanok eta hori izan dugu helburu egun horretan, asteazken «magiko» horretan, Parlamentuko gure lanaldia, eguerdian bukatzea eskatu dugunean; eta aho betean egin dugu alderdi guztiok bat horretan, beste ezertan akordiorik lortu ez badugu ere. Testigantza komun horrek inportantzia handia izan du aipatu dudana xederako: jendea «mozkorturik» gastatzera eramateko. Halere, Madrildik itzulian etxeratu naizenean, egoera latzarekin egin dut topo neure etxean. Behin eta berriz esan nien seme-alabei, etxean berean eta Madrildik telefonoz: «Ez zaitezte sar gastatzearen zurrumbilo horretan». Baina dena alferrik. Futbol-partiduen inguruko itsasgoraren olatu erraldoien indarrak denak, jende guztia, hartu ditu. Garbi konturatu naiz, baina berandu, ezen adar motzak dituela gezurrak. Madrilgo «lan»-orduetan gezurretan ari eta etxera etortzean gezurraren lana jasan behar. Gezurrak ere bere bidea, bere lan egiten, ba. Otsoaren hura bezala: «otsoa datorrela, otsoa datorrela» jendea izutzeko, gezurretan oihuka, eta otsoa egiaz datorren momentuko oihua inork sinetsi ez. Etxean ez ezik, Euskal Herrian ere, berrikitan, martxoaren 1ean, horrelako zerbait gertatu ote zaigun etorri zait gogora. Baina politikoak eskarmenturik ez: etxetik kanpo 14 ordu egin behar gezur hutsean, jende-tal-detxo guri eta gizen bat nola gurituko eta gizenduko gero eta gehiago, jendeari buruan sartuz herriaren alde ari dela. Eta etxera iristean, ustekabea. Etxekoentzat nahi ez nuena...


ENEKO. Hiru egun dira! Ze demontre! Ez naiz «carpe diem» zale. Baina gorputzari berea ematen ere jakin behar da! Irakasleak ulertuko du. Nola ez? Nahiz betiko ikaskide hark berriro esango didan: «arrazoiz esango diate beste behin unibertsitateko ikasleoz: zuen iraultzaile-lana egun erdi batekoa! Euskal Herriaren alde ari zaretela esateko, hilabete honetan bai eta hurrengoan ere bai manifestazioa antolatu; baina ostiral goizean, asteburu luzeagoa segurtatzeko». Eta, agian, ez da dena erabat gezurra. Zenbat aldiz etorri zaidan, ate joka, beste haren hura: «Aita euskaraz mintzo da eta semeak arrapostuia: "Soy vascongado, pero... aiantzi zait, ttipitikan ikasia!"». Erremediorik ez dut: barne-borrokaren tirabiran bizi behar, sasi-arrazoia esaten didanaren aurka benetako arrazoiari arrazoi eman nahi ezta. Jauntxo batzuen tresna diren telebistaren, irratiaren, egunkariaren...; jauntxo batzuen esku diren bidaia- eta hotel-agentzien mende... erori gabe, eta barnean bizi dudana gogo-bitasun honek larriki jo nagan baino lehen, jo dezadan harako hari _ saltzaile eroak baino erosle eroak gehiago dira _ hegoak moztu eta joera itzulikatzen. Has nadin, partidua bera ez

ikustetik, eta jarrai dezadan partidua iruzkinik ez egin, nire erabakia besteri adierazteko ez bada behintzat. Baina gauza izango ote naiz antolatu diguten zorakeriaren zorakeria horretan erori gabe eusteko?

GALTZAUNDI. Galdu ala irabazi, bizitzen ari garen hau da balio duena. Gero gerokoak. Eskatua dut diru-mailegua kutxan. Amak ez du batere gogoko izan Athletic azkenera iristea. «Hobe –esan dit behin baino gehiagotan– bidean, erdi bidean-edo, geldituko balitz». Eta orain, zorabioak harrapatu nauela ikusirik, ahoz eta idatziz adierazi dit: «Azken txarra egingo duk, txoria, gaztedanik egiten ez baduk habia». Baina zer egin? Lagunak hor ditut. Euskal Herriko Valentziara doazen sei ehun autobusetarik bat hartua dugu geuretzat. Erabakia guztiz sendoa dudala konturatu denean, amaren erretolikalak ez du azkenik izan: «Ez diat sumatzen hire geroko geroaren noizkorik; hik eta hik bezalakook askatu behar omen duzue Euskal Herria; ez dik zaila izan behar arazoak!; heu aske izan gabe hik askatu herria!» Baina muturrera iritsi da haren haserre, esan diodanean: «Ama, adiskide mina duzu familiako sendagilea, eta eska iezaiozu niri egun hauetako gaixo-agiria emateko, lantegian aurkeztu ahal dezadan». Baina ziur nago egingo didala mandatu. Askotan esan izan diot: «Ama, ez al zara jabetzen, horrelako festak zeuek, boztoz edo/eta bestela eratu duzuen gizartearen fruitua dela?»

AITZOL. Sinestezina! Horrelako jukutiarik! Milaka lagun egunetako lanik eza, joan-etorrietako gastuak, etxetik kanpo bizitzearen xahuketa. Zorakeriaren zorakeria. Zorakeria izenik gabea Davidek Goliat hiltzea egunero gertatzen dela uste ustea: Athleticek Bartzelona garaitu! Zorakeria handiagoa zoro-uste hori jendeari buruan sartu nahi izatea, eta horretan ahalegintzea. Eta jende zoroa: erregearen kontra irrintzi batzuk egin dituztela-eta aberriaren aldeko ekintza egin dutelakoan! Katalanak beren zorakerian euskaldunen gainetik zentzuz. Partidua irabazteaz gain, euskaldunak baino hurbilago bizi arren, jendetza erdia bidali Valentziara. Pozik neuretuko nukeen Jorge Luis Borges gogoeta hau: «Badira galtzeak irabazteek baino duintasun handiagoa dutenak»; baina ezin esan horrelakorik oraingo galtze honetaz. Izan ere, burua norberaren faltaz galtzeak sekula ez duintasunik. Esango nuke, garai batean norbaitek erlijioaz esan zuen hura, gaur egun gure artean kirol profesionalari, futbolari nagusiki, aplikatu beharko litzaiokeela. Lo-belar handia, zinez, futbola. Halere, Euskal Herrian, jakinaren gainean eta arrazoiaren arrazoiak, delako partidua ikusi nahi izan ez dutenek, jauntxoak lakio tamalgarri eta maltzuraren erori nahi izan ez dutenek, zutunik eutsi diote esperantzaren argimutlari, nahiz zarata eta buila, beste askotan bezala, diuarenak eta boterearenak izan.

Lau lagunei egin dizkiedan zortzi eskanerretako bakar batek ere ez dit utzi moralejarik, ez albiste moralistik. Bihoa berorretan.



Dionisio Amundarain

Iraganeko itsas mailaren aldaketak (eta II)

XX. mendean zehar eman den itsas mailaren igoeraren azelerazioa izango da etorkizun motzean giza jardueren eragin duten klima aldaketaren inpaktu gogorrenetako bat. Honek zientzia eta gizartearen interesa bultzatu dute, era globalean eragiten duen prozesu hau eskualdeka eta lokalki aurre egin ahal izateko.

Azken 150 urteetan (industrial iraultzatik) gizakia planetaren eraldaketaren eragile nagusi bihurtu da: biztanle kopurua nabarmen igo da; baliabide naturalen hustiaketa bortitza; ekosistemak okupatu eta paisaia eraldatzeko ahalmen tekniko handitu egin dira. Hau guztia oso nabaria egiten da kostaldean, gaur egun mundu mailako biztanleria gehiena bertan bizi delako.

Aintzinako itsas mailaren erregistroa paduretan

Euskal kostaldean itsas-labarrak dira nagusi, baina estuario txikiak ere badaude eta bertan padura (marisma) naturalak garatzen dira. Padura hauek historikoki nekazaritzarako erabili izan dira eta beraz erregistro geologikoa ez da bere horretan mantendu. Hala ere, azken bi mendeetan naturalki garatu diren padura hauetako inguruetan ikerketa geologikoak aurrera eraman ahal izan dira iraganeko itsas mailaren aldaketak ikusteko. Hauek mikrofosilen bidez egin dira, izaki hauek gazitasun eta ur sakontasunaren aldaketekiko oso sentikorrak baitira.

Bestetik isotopo erradioaktiboak erabiltzen dira sedimentuak datatu ahal izateko eta datu hauekin itsas mailaren kurba eraiki ahal da. Hau guztia mareografoetan erregistratutako informazioarekin alderatzen da eraiki den grafikoa fidagarria den ala ez konprobatzeko.

Bilboko lehen mareometroa Portugaleten kokatu zen 1883. urtean, baina zorritzarrez informazio hau ez dago eskuragarri. Gaur egungo Bilboko mareografoa 1992an kokatu zen eta ordutik hona erregistratutako datuak guztiz bat datoz sedimentuen bitartez eraikitako grafikoarekin. Beraz, paduretako erregistro geologikoak 1992. urtea baino lehenago gertatu diren itsas mailaren aldaketak erakusten dizkigula ziur egon gaitzke.

Itsas mailaren aldaketen eragina euskal kostan

Gure kostaldean duela 3.000 bat urte itsas maila gaur egun duen posizioan orekatzen hasi zen azken klima aldaketaren ondorioz, eta padurak sortzen eta garatzen hasi ziren. Orain arte egindako ikerketen emaitzek adierazten dutenez XX.

mendean urteko 1,9 mm igo da itsas-maila. Datu hau ikusirik, beharrezkoa ikusten da itsas mailaren eraginei aurre egiteko neurriak hartzea. Euskal biztanleri gehiena estuario inguruetan bizi da: Muskiz, Bilbao eta inguruak, Plentzia, Gernika, Donostialdea, Hondarribia, Irun,... Ingurune hauek topografikoki baxuak dira eta beraz itsas maila astiro igoztearen eraginak jasango dituzte.

Erakunde ezberdinek garatutako txostenetan itsas mailaren igozteari aurre egiteko neurri nagusi gisa kostako dunak eta padurak berreskuratzea aurreikusten da. Bi ekosistema horiek hesi natural gisa jokatzen dute itsasoaren aurrerakadaren kontra. Gainera, ekosistema dinamikoak dira eta naturalki eboluzionatzen dute itsasoaren aurrerakada eta atzerakadei, eskoilerek eta zementuzko dikeek egiten ez duten bezala. Azken urteetan euskal kostaldean berreskurapen adibideak ikus daitezke: Laidako dunak Urdaibaiko estuarioan eta Txakurzulo padura Butroi ibaiaren itsasadarrean, biak ere Bizkaian.

*Eduardo Leorri eta
Alejandro Cearreta*

Euskal kostaldean berreskurapen adibideak ikus daitezke: Laidako dunak Urdaibaiko estuarioan eta Txakurzulo padura Butroi ibaian.

JAKIN BEHARREKOAK

Bioterra 6. edizioa 2009ko ekainaren 5-7ra izango da Irungo Fikoban. Produktu ekologikoen, bioeraikuntza, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuaren azoka. www.bioterra.ficoba.org

Ekokazetaritza ikastaroa "on line" Donostiako udal-letxeak eta Asmoz Fundazioak antolatu dute. Gaur egun eskaera handia duen espezialitate honetan trebatzeko etorkizuneko informatzaileak.

Eusko Jaurlaritzak, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak bultzatuta, irabazi asmorik gabeko Elkarteei zuzendua, bioaniztasuna babestu asmoz, **azterketa eta sentikortze ekintzetarako dirulaguntza** batzuk aukeran jarri ditu. Goierrin naturarekin lotura duten ekimen, edo azterketa falta, asko badira ere, bereziki baten baten beharrik sumatzen baduzue, jar zaitezte Landarlan Elkartearekin kontaktuan, elkarlanean gaia bideratzen eta egitasmoa aurrera atera dadin saiakera edo ahalegina egin dezagun.

Herrialde aberatsetan dauden jakien %30-50 zakarrontzian bukatzen du. Kopuru handiena banatzean izorratzen da edo ez du saltzeko neurri egokia. Etxean kadukatu edo alferrik galtzen da beste guztia.

Denetik (XX)

Maizpide
euskaltegia

“Bakarrik esan” eta “hobe esan”

Berriak, guztiz berriak ditugu goiko forma berezi horiek. Ez dira batere txukunak, beraz, lehenbailehen baztertu beharrekoak!

- ✗ *Bukatzeo, bakarrik esan, alkateak gure eskaria onartu ezean, kale gorrira joango garela (oker)*
- ✓ *Bukatzeo, bakarrik esan nabi dut, alkateak gure eskaria onartu ezean, kale gorrira joango garela (zuzen)*
- ✗ *Eskumen horiek, hobe esan, ez dagozkio Udalari, Aldundiari baizik (oker)*
- ✓ *Eskumen horiek, hobeto esanda, ez dagozkio Udalari, Aldundiari baizik (zuzen)*

“Murgilditis”?

Lasai, lagunok, ez kezkatu izenburua irakurtzean, “A gripa” deiturikoaz gain, beste gaixotasun larririk ez baita Ozeano Atlantikoaz bestaldetik Euskal Herrira etorri. Kontua da, Goierritarraren joan den zenbakiko “garrantzitis” bezalaxe, murgildu aditza behar baino gehiagotan erabiltzen dugula euskaraz. Ikusi bestela:

- ✗ *Sidenorreko ELA eta LAB negoziazioetan murgildurik daude enpresako zuzendaritzarekin (oker)*
- ✗ *Herriko jaietan murgilduta daude beasaindarrak (oker)*
- ✗ *Greba gogorrean murgildu dira enpresa borretako langileak (oker)*

Bartzelonari irabazi izan bagenio, Bilboko itsasadarrean murgilduko ginen, baina, tira, aterako dugu gabarra hori noizbait! Gora Athletic... eta Gora Euskadi, dedio!



Rufino lehoia, triste, baina itxaropentsu!

Honela esan besterik ez genuen:

- ✓ *Sidenorreko ELA eta LAB buru-belarri ari dira negoziatzen enpresako zuzendaritzarekin (zuzen)*
- ✓ *Herriko jaiak bete-betean ari dira ospatzen beasaindarrak (zuzen)*
- ✓ *Greba gogorra egiten ari dira enpresa borretako langileak (zuzen)*

Ondorengo hauek, bai, txukunak baino txukunagoak dira:

- ✓ *Orain dela urte batzuk Karibeko ur gardenetan murgildu omen zen Kurro izeneko gaztea (zuzen)*
- ✓ *Joxe Mari lanean murgilduta dago eta ez iezaiozu ezer galdetu! (zuzen)*

“Garaipena lortu” eta “porrota jaso”


Kirol emaitzei buruz ari garelarik, ohikoak dira komunikabideetan goian aipaturikoak. Zergatik ez erabili, ordea, askoz jatorragoak diren irabazi eta galdu aditzak?

- ✗ *Eibarrek porrota jaso zuen Alacanteko Hercules taldearen aurka (oker)*
- ✓ *Eibarrek galdu egin zuen Alacanteko Hercules taldearen aurka (zuzen)*
- ✗ *Athletic-ek garaipena lortu zuen Sevillako Betisen aurka (oker)*
- ✓ *Athletic-ek irabazi egin zuen Sevillako Betisen aurka (zuzen)*

Zuzendu, behar izanez gero...

1. Nahiz eta Errege Kopako finala galdu, jokalariek badute harro egoteko arrazoirik: euren jarraitzaileak!
2. Badira abenduan Kontxako ur hotzetan murgiltzen diren gizon-emakume ausartak!
3. Bukatzeko, bakarrik esan, Goierriin gero eta txukunago hitz egiten dela euskaraz.

OHARRA: denak zuzenak, hirugarrena izan ezik (*bakarrik esan nabi dut* beharko du).



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



ondoeta

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: ondoeta@ondoeta.com

www.ondoeta.com

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

Berogailu dotoreak kolore eta akabera ezberdinekin



**APROBETXATU
PROMOZIO BEREZIA
ORAIN!**




Orain beheko suetan erakusketa berria :

Biomasa EVE planarekin

Bertan 40 aparatu baino gehiago ikusteko aukera
(zurezkoak, gasezkoak, pelletezkoak)

Beheko suak neurrira eta bertan diseinatuak

Sukalde eta bainu gelatan adituak



**Zeramikan
azken
diseinuak**

**Bainugelatan
aukera
zabala**



NZ

JARDUNALDI IREKIAK

Martxoak 25 Asteazkena (16:00 a 20:00)
Maiatzak 6 Asteazkena (16:00 a 20:00)

INFORMAZIO SAIOAK

Martxoak 27 Ostirala (18:00)
Martxoak 28 Larunbata (11:00)
Maiatzak 8 Ostirala (18:00)
Maiatzak 9 Larunbata (11:00)

Batxilergoa

Zientziak eta Teknologia

Natura eta Osasun Zientziak

Lanbide Zikloak

Goi Mailako Zikloak

Administrazioa eta Finantzak
Informatika Sistemen Administrazioa
Nazioarteko Merkataritza
Idazkaritza

Ziklo Ertainak

Administrazio-Kudeaketa



nazaret zentroa

Aldakonea, 36 · Bº Egia
20012 DONOSTIA
Tel. 943 326666
Fax. 943 326384
nazaret@nazaretzentroa.com
www.nazaretzentroa.com



kutxa | Lankidetzako Gizarte Ekintza



Legorretako adin txikikoen zentroa:

Kezkak itxaropenari egin dio bidea

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Legorretan, adin txikikoen zentroa irekitzeko asmoa zutela jakin zutenean, kezkaz jaso zuten albistea legorretarrek. Gaur egun ordea, kezka, itxaropena bihurtu da, 9 adin txikiko atzerritarrek herrian integratzeko pausoak ematen ari baitira, herriko eragile guztien arteko elkarlanari esker. Maiatzaren 9an, Herri Zineman egin zuten festatxoa da horren adibide.



Iñauti
Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbk. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28



mazda

Bikar, S. A.

☎ 943 889 296
Faxa: 943 887 952
N-1 errep. 419 Kma
BEASAIN




aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66
Aulia-enea
LEGORRETA

Nola hartu zenuten Adin Txikikoen zentroa herrian bertan izango zenukelaren albistea?

Mari Paza Garmendia: Kezka handiekin.

Iñaki Oiarbide: Jakin genuenean, denok aztoratu ginen. Kezka pilo bat sortu zitzaizkigun. Albistea, zeharka jakin genuen gainera. Udaletxera iritsi zen gaia eta izugarritzko zalaparta sortu zen. Lazkaon sua eman berri zioten, Segurako esperientzia, Idiazabalgoa... guk ez genuela nahi inondik inora esaten genuen. Herriko erakunde guztiak bildu ginen. Opozioarekin bat egin dugun gaia izan da. Testu bateratu bat egin eta sinadurak bildu genituen. Diputaziora bidali genuen... azkenean zentroa erosi egin zuten. Gero, bigarren fase batean hasi ginen.

Idatzia zer zioen?

Oiarbide: Idatzian ez etortzeko eskatzen genien. Ez geundela ados Diputazioaren metodoekin, ez zuela beraien metodoak funtzionatzen. Ez geundela ados Diputazioarekin metodoeekin.

Lehenengo erreakzioaren ondoren, bigarren erreakzioa zein izan zen?

Garmendia: behin hemen daudela, beste aurrerapauso bat eman beharra geneukala pentsatu genuen. Bi aukera geneuzkan: hor daudela eta ezikusiarrena egin



Angel Sanz (Guraso Elkarte), Iñaki Oiarbide (Alkatea), Izaskun Unzu (Adin Txikiko zentroaren arduraduna) eta Mari Paz Garmendia (Ongizate zinegotzia).

Bata lantaldea

Adin Txikiko Atzerritarrak iristearekin batera, Bata lantaldea (Bakarrik dauden Adin Txikiko Atzerritarrak) sortu zen Legorretan. Taldea irekia bada ere, ondorengo eragile hauek osatzen dute taldea: Udala, Ugari ikastetxea, Guraso Elkarte, Gaztetxea, Gain Eder Adin Txikikoen Zentroa, Foru Aldundia eta Goieki. Elkarriketara etorri zirenak honakoak izan ziren. Iñaki Oiarbide alkatea, Mari Paz Garmendia Ongizate zinegotzia, Izaskun Unzu, adin txikikoen zentroko arduraduna, eta Sandra Soriano eta Angel Sanz Guraso Elkarteko ordezkariak.

edo herrian integratzen saiatu. Integrazioari heltzea erabaki zen.

Oiarbide: Bata lantaldea osatu genuen. Diputazioko ordezkariak etorri ziren eta

Donostiako eta Tolosako esperientziak kontatu zizkiguten. Leku horietan taldearen lana gehiago zen, jarraipen edo polizi lana egitea, arazorik ez emateko. Lego-

retan erabaki genuen pauso bat gehiago ematea. Gaztetxeok, Guraso Elkartek eta Udalak, polizi lana baino gehiago mutikoak integratzea nahi genuen.

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo
barne diseinua
dekorazioa

**Garai berrietarako
idea berriak**

Katea 5, Antzizar auzoa
Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN

ZUBARA
Eraikuntzak s.l.

Promoziok, Eraikuntzak,
Erreformat...

943 65 34 93 - 649 46 32 89
ABALTZISKETA

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGI

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

**Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak**

Izaskun Unzalu: Nik esan behar dudana da, lehengo egoera eta oraingoa oso ezberdinak direla. Diputazioak programa guztia aldatzeko apustua egin du. Ikusi da, lehen zeuden programak arazo asko ematen zituela eta orain programa ezberdin batekin hasi gara lanean. Zentro gehiago daude. Proiektu zehatzak, ezberdinak egin ditugu, eta Legorretakoa, bat da. Emaitza txiki bat da hau, bizi dugun prozesuan.

Oiarbide: Aldaketa bat etorri da. Deba asko entzungo zenuten, konfliktiboak han daudela... Legorretan, Igeldon, Tolosan... arazoa ematen duen mutikoa Debara bidaltzen da.

Unzalu: Ulertzen delako, ume hori ez dagoela prestatuta daukan eskaintza aprobetxatzeko. Zentro honetan, oinarritzko arau batzuetan mugitu ezin denez, Debara edo espezializaturakoa beste programa batera joango da. Programa teraupetikoak izan daiteke, edo jokera txarra izan duelako. Eskaintza hau aprobetxatu nahi duenekin jarraitzen dugu lanean.

Azken batean, adin txiki-koen artean, arazoak sortzen dituztenak, gutxiengo dela esaten da.

Unzalu: Gutxi dira bai.

Oiarbide: Mutiko horiek normalean, liderazgoa hartzen dutenak izaten dira eta talde guztia bide okerretik eramaten dute. Horiek apartatuz gero, besteekin beste dinamika batekin lan egin daiteke.

Unzalu: Apartatu bai, baina beraiek nahi dutelako. Aukerak ematen zaizkie. Lan egin nahi dutenekin gelditu gara eta orduan, Bata-ekoen hitz egiten hasi ginen, zer egin zitekeen aztertze-ko. Zentroak 6 hilabete dauzka eta oraindik goiz da, baina otsailetik aurrera, Deban beste zentroa ireki zutenetik aurrera, ikusi zen posible zela beste dinamika

Dotore-dotore, gomina eta guzti

İnaki Oiarbide Legorretako alkateak adierazi duenez, gaztetxoak, oso dotore etorri omen ziren festara: "Engominatuta etorri ziren mutiko guztiak, oso dotore".

Gominaren istorioa kontatu digu Izaskun Unzaluk. "Beraientzat garrantzitsua izan zen gomina edukitzea. Guk normalean ez dugu erosten. Arabiazko musika udaltxean jartzeko cd bat nuen galdetu zidaten. Urretxuko pisura, hezitzaile bat bi umerekin joan zen. Istorioa kontatu zien eta gomina pote batekin etorri ziren, munduko altxorrik handiena izango balitz bezala. Lortu dugu! Egin ez itzuli ziren. Dotore-dotore jarri ziren. Garbitasuna zaintzeko esaten diegu eta azkenean engominatuta joan ziren. Oso dotore joan ziren. Ekarri zuten itxura adierazgarri bat da. Normalean, kaputxarekin joaten dira. Bel-durra daukatelako erabiltzen omen dute, jendeak gaizki begiratzen dietelako. Hemen ez daukagu arazo hori. Hasi gara, umeak farmaziara bakarrik bidaltzen. Hori garrantzitsua da guretzat. Pisutik badoaz eta ez dakite aspirina kaxa bat nola erosi".

batzuk egitea, herritarren inplikazioarekin.

Gurasoen ikuspegia zein izan zen?

Sandra Soriano: Hasiera batean kezka.

Angel Sanz: Kezkatu egin ginen hasieran. Giroa ez zen batere ona. Jendea ez zegoen beraien etorreraren alde; justu kontrakoa. Ikusita, Tolosan gertatutakoa.

Soriano: Guk ere eztabaida handiak izan ditugu.

Angel Sanz: Guk esaten genuen, gu ez ginela inor esateko, ez etortzeko. Azken finean, pertsonak dira, besteok bezala, eta gu gurasoak izanda, oraindik eta

gutxiago. Ordutik hona, esperientzia oso positiboa izan da.

Maiatzaren 9ko festaren ondotik, gaztetxoak zer moduz daude? Pozik? Zer aldatu da herrian?

Unzalu: Bai, oso-oso pozik. Hasieran plana zen, kafe bat hartzea, eta elkar ezagutzea, Bataren berri bai baitaukate. Askok ireki ziren eta asko hitz egin zuten jendearekin. Etxera joateko ordua ere atzeratu egin genuen, eskatu egiten zuten-eta.

Soriano: Gustura zeuden. Tea zerbitzen ikusi behar ziren.

Oiarbide: Oso polita izan

zen, herriko belaunaldi guztiak joan zirelako. Jubilatua, herriko apaizak meza ordua aldatu zuen 7etatik 6etara, gurasoak... Oso polita izan zen sortu zen giroa.

Unzalu: Gu ere sentipen berarekin gelditu gara. Umeak ere oso gustura gelditu dira eta gero eta gehiago eskatzen dute. Orain herriko festetarako blay back-a prestatuko dute. Kalean lasai ibiltzen dira. Gero eta integratuago ikusten dira.

Oiarbide: Hasiera batean, Donostia aldera joateko joera zeukaten.


Unzalu: Beraien herrialde bereko pertsonekin egotera joaten ziren. Gure proiektuak ikusten du, Legorretan baldin badaude, herrian bertan integratu behar dutela. Hasiera batean kostatu zitzaigun baina Donostian arazoak izaten hasi ziren eta beraiek ere ikusi zuten. Orain herrian gelditzen hasi dira. Orain, Ordiziako kiroldegira joaten hasi behar gara. Zuen laguntza behar dugu, baina beraiek izan behar dira nahi behar izan dutenak.

Soriano: Herritarren jarraitzearen aldetik, nik uste dut, adineko pertsonen ikusi zutela, pertsonak direla. Arraro begiratzen omen zien urrutira, baina gertutasuna lortu zen. Guraso Elkartetik ere gustura gelditu ginen.

Beraien errealitatea eza-gutzeko aukera izan zenuen zuek ere ezta?

Oiarbide: Bai, oso polita izan zen. Bi mutikok hitz egin zuten zinean. Hain goxo eta umil hitz egiten zuten... jubilatutak baten gehiagok esaten zuten, etxera sartzeko modukoak zirela mutikoak. Zinera joan ziren guztiei gelditu zitzaizkien sentipena nik uste dut oso ona izan zela. Joan ez denari, zurrumurrua iritsiko zaio.

Unzalu: Beraiek ere urduri ibili ziren. Zer kontatuko zuten... Egunero egiten zuten kontatzeko esaten ge-



Besteak beste, etorkinen inguruko erakusketa antolatuta dute Legorretan

nien. Baina beraiei zer inporta behar zaie? Esaten zuten. Egunero eskolara joaten dira... hemengo gazte-txoekin komunean dituzten gauza asko dauzkate, baina inoiz ez da kaleratu.

Sanz: Herriak zituen espektatiba txarrak ez dira bete. Herrian ez da inongo berririk egon beraz, hori seinale ona da. Horrek ere asko lagundu du, giroa lasaitu egin da. Zurrumurrua zabaldu zenean, izugarria izan zen. Espektatiba txarrak zeuden. Herritarrok konturatu gara, pertsona normalak direla, beraien arazoekin. Normalizat jotzen du orain jendeak.

Oiarbide: Pentsaren bidez zabaltzen zaigun irudia txarra da. Han lapurreta, beste bat han ere bai... bortxaketa saiakera... oraindik ere badago. Lapurretak herri guztietan daude eta lapurretaren bat gertatzen denean jende guztiak gora begiratzen du. "Mutikoak izango ziren!" Azalpena eman beharra daukazu: 9etarako zentroan ez badaude, Er-tzainei partea ematen zaie; kamarak daude zentroan; bi arduradun gau guztian; gauetan ez dira ateratzen... dena azaldu beharra daukazu. "Orduan ez ziren izango, esaten dute". Lehenengo pausoa, mutikoak etortzen zaizkigu burura. Oraindik denbora behar dugu hau dena gainditzeko.

Garmendia: Baina horretarako gauda. Prozesu bat da.

Oiarbide: Egia esanda, oso natural doa. Poliki-poliki. Gaztetxeak ere bileran egoten dira, eta futbol partidua antolatu zuten lehenengo.

Unzalu: San Silbestrean ere parte hartu zuten korrika. Gutxinaka-gutxinaka ikusten joango dira. Gero eta ekintza gehiago egiten ditugu herrian. Gero eta gehiago ikusten gaituzte. Publikoan egindakoa festa hori izan zen lehenengo eta se-



Eguneroko bizitza, Gain Argi adin txikikoen zentroan

Zenbat adin txikiko daude Legorretan?

Unzalu: 10 lagunentzako lekua dago eta momentu honetan 9 daude. 14-17 urte bitartekoak dira. 18 urte betetakoan, beste programa batera bideratzen dira.

Nolakoa da adin txikikoen zentroetako bizitza?

Unzalu: Oso zorrotza da gure proiektua. Ezin dira hemendik irten. Gure ikuspegitik, umearentzat errutina bat, oinarritzko arau batzuk edukitzea, beharrezkoa da. Umeak azkenean, errutina bat eskatzen du. Goizetan Cip-era joaten dira, Tolosara, Donostiara edo Irunera. Derrigorrezkoa da. Ikasketak eta tailerrak dira. Goizeko 6,30etan jaikitzen dira. Ohea egin gabe ezin dute gosaldtu. Trena hartu eta ikastetxera joaten dira. Cip-etik bueltan, bazkaldu egiten dute eta ondoren, 30 minutuko siesta egiten dute, beraiek hala eskatuta. Ondoren, ekintza labur bat egiten dugu. Askaria eta ekintza luze bat. Ostiral arratsaldeetan, normalean, libre uzten diegu. Batzuk neska laguna dute, edo anaia, edo lagunak herrian... larunbata eta igandeetan dinamika aldatzen da. Beranduago jaikitzen dira. Etxea garbitzen dute: lehenengo beraien logela eta gero, amankomunean erabiltzen diren guneak. Futboleak, saskibaloia eta frontenisia jokatu... bazkaldu, eta arratsaldean libre izaten dute. Edo, txintxo portatzeagatik, sariak ere izaten dituzte. Aurrekoan, adibidez, Real Unionen partidua ikustera joan ziren eta Bruesarena ere bai. Ondo portatzen direnei, errefortzu bat eman behar zaiela uste dugu. Ez eman arreta guztia gaizki portatzen direnei. Hasiera gogorra izan zen, batzuk beste zentro batzuetatik zetozelako. Pixkanaka-pixkanaka dinamika berrira moldatu dira eta moldatu ez direnak beste zentro batzuetara joan dira. Egoera kritikoa pasatu dugu eta orain pixkanaka-pixkanaka bagoaz aurreratzen.

Gabonak gogorrak izan ziren. Etxean denbora asko...Hiru edo lauk arazoak sortu zituzten. Debako zentroa ireki zuten eta hara bidali genituen. Zeintzuk merezi duten hemen egotea eta errekurso hau aprobetxatzea ikusi genuen eta aurrera goaz. Gaur da eguna, besarkada bat eman diezaikeezula. Gabonetan, ezinezkoa zen, fikziozko zientzia zen. Beraientzat hori berria da. Beraientzat lehenengo aldia da, ondo egin duten zerbait egunkarietan atera direla.

Udari begira beraz zerbait prestatzen ari al zarete?

Unzalu: Zentroan bertan ekintzak egingo ditugu. Irailerako, beharbada, zerbait pentsatu dugu herri mailan egiteko.

guraski, egongo dira gehiago.

Sanz: Dokumentalak berak lagundu zuen, jendeak jakiteko, zergatik dauden hauek hemen. Hango egoera nolakoa den ikusten zen eta pentsatzen dut lagunaria izan zela, katea lotzeko beste katebegi bat. Jendeak galdetzen du adin txikiko hauek zergatik dauden hemen. Dokumentalean ikusi zuten zein egoera latzean bizi diren.

Aurrera begira, ideia gehiago izango dituzue, ezta?

Unzalu: Oraintxe herriko jaietan gaude murgilduta. Play back-a egingo dugu eta paella ere egingo dugu. Paella egitea oso sinplea dela ikusiko duzue, baina guretzat, prozesu gogorra da. Beraiek, ez dute paella bat egin, ia inoiz. Arroza bai, baina paella ez; eta gutxiago kalean. Beraientzat mundu bat da. Paella bat egiteko, 23an da, ba aurreko astean, material guztia hartu eta kalera aterako gara. Bakoitzak zein lan egingo duen zehaztu... hori guztia koordinatu behar da. Pixkanaka-pixkanaka goaz. Gero eta erraztasun gehiago hartuko dugu, beraiek ere beste abilitate batzuk hartzen ari direlako. Beraiek ez dute inoiz bitrozeramikarik ikusi. Pixkanaka-pixkanaka joan behar dugu lantzen. Horrelako ekintzek laguntzen digute jakinduria za-



Legorretako Gaztetxearen IV. urteurreneko egitarauaren barruan, Gazte Asanbladako kideek berrera etxean dauden etorkin gazteen aurka, areto fboleko partida jokatu zuten.

baltzeko. Herriko adin bereko mutikoen pare jartzeko asko falta zaigu, baina pixkanaka-pixkanaka bagoaz. Zuen laguntzarekin, denon laguntzarekin, aurrera atera gaitezkeela erakutsi genuen ostiralean.

Gurasoak jarri al zarete pentsatzen, gure seme-alabei antzeko zerbait gertatuko balitzaien...

Soriano: Gure artean eztabaida izan genuen bai. Batzuk, ez zietela utziko alde egiten...

Oiarbide: Nik uste dut egoera horretan jarri behar ga-

rela.

Soriano: Hemen hazi diren 14 urteko gazteak, 3 urtetik daude eskolan. Hauek orain zuzenean, lanbide heziketara sartzen dira eta ahalegin handia egin behar dute. Etorri berriak dira, batzuk eskolarekin, besteak eskolarik gabe...

Unzalu: Guk 20 urtetan lortzen ditugun ikasketak lortzea, guk hiru urtetan planteatu behar dugu. Maratoi bat da guretzat.

Etorritako adin txikiko en istorio ezberdinak daude. Gurasoen aldetik dene-

tarik dago. Batzuei bidaia ordaintzen diete. Baina beste batzuk badaude, bere amari ezin diola badoanik ere esan. Beraz, Algecirase-ra iritsitakoan, deitzen dio Espainian dagoela esateko. Egokitzen direnean deitzen dute. Familiarentzako ere gogorra da egoera. Gehienek ikusten dute, zortzi anai-arreba direla, bera txikiena, ez daukala zereginik. Ezin du ikasi, etxean egon behar da... Zortea probatzea erabakitzen dute.

Soriano: 8 urtekoak ere etortzen direla esaten duzue. Nik ikusten dut, nire alabak 8 urte dituela eta dena nirekin egiten duela. Ni harri eta zur gelditu nintzen. Niretzat dokumentala oso gogorra izan zen. Errealitatea izango da, baina gogorra.

Oso polita izan zen festan herriko belaunaldi guztiak elkartzea. Apaizak ere meza aurreratu zuen.


JOXE MARI IPARRAGIRRE
BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA
Santa Barbara Bidea z/g. URRETXU Tel./Faxa: 943 721413- 943 721403
www.iparragirre.net - jmiparragirre@edunet.es

ERIZAIN LAGUNTZAILEA

Erdi Mailako Heziketa Zikloa. Osasun familia. A-D ereduak.

LANBIDE ETORKIZUNAK:

- ✗ Ospitaleko erizain laguntzailea
- ✗ Zaharren egoitzetan
- ✗ Eguneko zentruetan
- ✗ Lehen artapenetako laguntzailea
- ✗ Kontsulta pribatueta
- ✗ Hortz-kliniketan laguntzailea
- ✗ Gaixoen zaintza



AURREMATRIKULA:

Ekainaren 1etik 12ra (biak barne)

MATRIKULA EGITEKO EPEA:

Ekainaren 29tik uztailaren 3ra (biak barne)



Agur Trevijano

Maiatzaren 31n 1979tik hona Ordiziako errugbi zelaia izan denari agur esango zaio

over Urraki
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

AMEB

Sagardotegia

**Erretegi bezala
zabalik**

- * Eguneroko menuak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO



Trevijanoren birmoldaketarekin Ordiziako errugbiak salto kualitatibo handia izan zuen, batez ere jokalarien maila teknikoari dagokionean.



Errugbi zelaiaaren egoera asko aldatu da goiko argazkiko gazteek izan zutenetik. Bebeko argazkian Ampo Ordiziako bigarren taldeak Rioja RC-ri 61-0 irabazi zionekoa da Trevijanon jokatutako azken partida ofizialean.

Jose Luis Castro ordiziarrak, barru-barrutik ezagutzen du Ordiziako errugbia eta ondorioz, Trevijano errugbi zelaiaaren historia. 1979. urteaz geroztik, albiste asko eman ditu Trevijano zelaia. Oraingo albiste, Trevijanoren agurra da. Protagonista lekuan bertan jarri dugu hitzordua Jose Luis Castorekin.

1973. urtean sortu zen Ordiziako errugbi taldea. Castrok gehiago zehaztu du, ondo gogoan baitu egun hura: "1973ko urriaren 28an hasi zen jokatzen. Irungo Rugby Clubarekin jokatu genuen, Altamiran. Oso egun eguzkitsua zen".

Lehenengo partida hura ikustera, jende asko joan omen zen. "Kifi zen herriko berriemailea eta ondo zabaldu zuen berria. Morbo handia zegoen. Futbola eta errugbiaren arteko borroka planteatzen ari zen. Eskubidea genuen ala ez... Guk zergak berdin ordaintzen genituela eta beraiek adinako eskubidea geneukala esaten genien. Denetik jasan behar izan genuen. Ura kentzen ziguten, argia, berogailua, ur beroa... 68ko filosofian oinarrituz beti irudimena erabiliz. Egunotan garai hartako dokumentazioa begiratzen aritu naiz eta iritsi garen lekura iristea, benetako miraria izan da. Gainditu ditugun oztopoak kontatu eta sinestaitza da. Gainera, jendea atzetik genuen, jarraitu egiten gintuen. Lehenengo taldeak ez dakit denboraldia bukatu genuen ere. Baina atzetik, bi mutil talde jokatzen hasi ziren, kadeteak eta jubenilak. Harro gaude, eta zoriontsu. Asko-asko gozatzten. Eta errebantxa asmorik gabe. Bizitzaren legea da. Oztopoak gainditzen jakin dugu, herri honetan jarritako politiko ez zutenak etiketa edukitzen jarraitzen badugu ere", gaineratu du ordiziarrak.



Trevijano zahar eta berriaren lekuko diren 4 argazki. Garai batean sortzen zen lokatzak ez du zer ikusirik gaur egungo zelaiaren kalitatearekin.

Hondakindegitik errugbi zelaira

1979. urtean, zelaiaren arazoa konpondu zen, CAFekin akordiora iritsita, CAFen lursail batean, errugbi zelai prestatu zuten. “6 urtean, batetik bestera ibili ginen. Liga Vasco-Navarra zegoen orduan. Oraindik nafarren lagunak ginen”, gogoratu du irribarrez.

N-1 errepidearen ondoan dago Trevijano. “Zelai-gune bat zegoen, hondakindegia zen. Fundizioko hondakinak daude azpian. Berroa dago beti. Azpian dagoena eboluzioan baitago beti. Hasierako partiduetan, edozein momentutan gelditu egiten ginen, krak entzunda. Edozer ateratzen genuen”.

Errugbi zelaiaren izena

nondik datorren geldetu diogu: “Gipuzkoako Elkar-teko presidentea Hernaniko Adarraga zen. Trevijanoren laguna zen, ikasle garaitik. Trevijano, CAFeko akzionistatik handiena zenaren alabarekin ezkondata zegoen. Elkarriketetan geundela, bikotea istripu batean hil zen. Alabaren aitari, Trevijanoren izena jartzea proposatu zitzaion. CAFek lursaila utzi zuen, baldintza batekin: beti, udaletxea izango zuela ardura eramango zuena”.

Bi fase

1979-80 denboraldian hasi ziren ordiziarrek Trevijanon jokatzeko. “Uste dut San Juan egunean inauguratu zela. Garai hartako jubencil mailako txapeldunarekin inauguratu genuen, Madrilgo Ca-

noerekin. Atlético San Sebastian eta gu izango ginen”.

Garaiak aldatu direnaren adierazle, bitxikeria bat kontatu digu Castrok: “garai hartan, beste taldeak ez ziren hotelera etortzen. Etxetara joaten ziren. Gu ere Madrilera joaten ginenean, beraien etxetara joaten ginen. Batzuk euskarazko hitzak ere ikasi zituzten”.

Errugbi zelaiaren zaintza, errugbilariak beraiek arduratzen ziren. “Belarra moztu, zuhaitzak landatu, setoa... garbiketa... egin genezakeena geuk egiten genuen”.

Euria egiten zuenean sortzen diren lozkatiak farnatuak ziren garai hartan. Makina bat argazki dago horren lekuko. “Lokatza

ezin kendu ibiltzen ginen egunetan”.

Oroitzapen txar bat gogoan du Castrok: Osinalderen heriotza. “Jokatzen ari zela hil zen eta oso gogorra izan zen. Huts egin dugu, bide txarretik goaz... asko hausnartu genuen. San Juanetan inauguratu genuen Trevijano. Denboraldi horretan, otsailean, Atlético San Sebastianen aurka jokatzen ari ginela, salto egin eta bertan gelditu zen. Inauteriak ziren, hortaz gogoratzeko naiz”.

Trevijanorentzat eta Ordiziako errugbiarentzat garai hobeak etorri ziren. “Domingo Merino, Fraisoroko ingeniari agronomoa etorri zenean hasi zen Trevijanoren bigarren fasea. 90. urte inguruan izan zen. Birmol-




ARANDIA

GARAJEA

Autoen konponketa

N-1, z/q lurre Auzoa OLABERRIA ☎ 943 88 09 47

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239



Lurrindegia eta opari gaiak



Agur festa, maiatzaren 31n

Trevijano errugbi zelaian azkeneko partida jokatu da maiatzaren 31n, agur festaren barruan. Zein partida jokatu den zehazteko dago oraindik, baina bi aukera egon daitezke. Ahal dela, inaugurazio eguneko filosofiari heldu nahi diote, jubenil mailako partiduekin. "Alegoria bat bezala: gaztediarekin inauguratu genuen, eta gaztediarekin agurtuko dugu. Biziaren irudia eman nahi dugu. 36 urte pasatu direla, baina gazteak izaten jarraitzen dugula. Dena ondo baldin badoa, Valladoliden irabaziko bagenu, finalaurrekoaren itzulerako partidua etxean jokatu genuke, Trevijanoren agurraren egunean, maiatzaren 31n hain zuzen ere. Oso polita izango litzateke. Omenaldirik onena, bertako taldea aritzea da, inauguratu zen bezala, gazteekin. Jubenilek ez badute finalaurrekoa jokatzeko, Madrilgo Olinpiko izan daiteke. Luntxa egingo dugu, zelaian bertan. Mahaiak jarriko dituzte, jan eta edanarekin. Oroigarriak banatuko dizkiete instalakuntza honekin zerikusia izan dutenei. Besteak beste, CAF eta Udala", azaldu digu Jose Luis Castrok.



daketa bat egin zen, filtra-zio egokia jarritz. Borroka handiak izan genituen udalbatzetan. Hauteskundeak ziren bakoitzean, kanpainetan azaltzez zen errugbia. Kanpainan garrantzitsuak izaten ginen. Gero ez. Borroka asko egin behar izan genuen".

Zelaia birmoldatzearekin batera, aldalgela berriak ere egin zituzten. Lan ona egin zen. "Iparraldeko taldeen aurka asko jokatzeko genuen. Autobusean etortzen zirenean, belarrari hel-tzen zioten, benetakoa edo artifiziala zen ikusteko. Urte askoan oso ondo egon zen, Udala, mantenimenduko gastua jaisten hasi zen arte. Entrenatu, maila guztietako partidua jokatu... eta oso ondo dago zelaia. Oso eskuzabala izan da alde horretatik. Nik uste dut, azpian daukanagatik dela. Mineral ugari dauzka: burdina, manganesoa... Belarra

oso ondo atera da eta uraren filtroak oso ondo funtzionatu du. Euri asko egiten duenean, hondar pixka batekin aterako zara, baina ez lokatzarekin. % 90 hondarra da, % 10, lur bejetala. Miranda de Ebroko ekarritako hondarra da. Errekako harria txiki-txiki eginda, hondar horrek filtroa egiten du eta aldi berean, landareak elikatzen ditu. Teknikoki, aurrerapauso handia eman genuen".

Errugbi zelaia birmoldaketarekin Ordiziako errugbiak salto kualitatibo handia izan zuen Castoren esanetan. "Batez ere, jokalarien maila teknikoari dagokionean. Kalitatea bage-neukan, baina ez non gartua. Gaur egungo jubenilen taldea jokatzeko ikastea zoragarria da".

Momentu polit asko bizi izan dituzte Trevijanok. "Ohorezko mailara igo zen eguna zoragarria izan zen.

**"Eguneroko ogia, ogi bereziak
eta pastel ezin hobeak"**



K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

**Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak**

**Filtroak, olioak,
engrasea**

**Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak**

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57



Gehiago ere egon dira, baina hori izugarria izan zen”, zehaztu du ordiziarrak. “Pena da pikutara joatea, baina, lanpostuak sortuko dira bertan”.

Zelai berria

Zelaiaren agur festan, batek baino gehiagok negar egingo du. “Ni izango naiz lehenengoa”, esan digu Castrok. Altamirako zelai berriarekin gainera, ez daude oso gustura Ordiziako errugbilarriak. “Niri, pertsonalki ez zait gustatzen. Oinutsik zapalduz gero, ez dauka zerikusirik zoruak. Belarrezkoa hobe da. Oina ondo finkatzea da garrantzitsua da. Trevijan on oina finkatu eta bira oso ematen diozu oinari. Altamiran, oin osoak jiratu dezake, baina gertatu daiteke ez jiratzea. Aurten, Altamiran, belar artifizialarekin, lesio asko izan ditugu. Ligamentuak hautsi... Zerbait pentsatu beharrean gaude. Oinetakoak aldatu, entrenamenduak, luzamenduak... zerbait aldatu behar dugu lesio mota horiek ez edukitzeko. Ez naiz gogoratzen hainbeste lesio izan denik sekula. Gogoratzen naizen larriena, Hospitale-

ten, Espainiako txapelketa batean, 19 urteko mutil batek, femur hausketa izan zuen. Belar artifizialaren errua da. Argi dago”.

Belar artifizialarekin gustura ez egoteaz gain, beste hainbat kezka ere badituzte: “asko galduko dugu. Gure etxean, nolabait esateagatik, entrenamendu orduak, partidu orduak... guk jartzen ditugu. Tabernana ere badugu eta elkar-gunea da hau ere. Urtean, diru sarrera polita izaten dugu bertatik. Hori ere galduko dugu ekonomikoki. Aforoaren gaia, pentsatzen dut, beste atea irekiz konponduko dela. Tribunan 400 pertsona inguru sartzen dira, ez dira 500era iristen. Trevijan 800-900 lagun etortzen dira partiduerok. Altamiran jokatzeko, galtzerdi batean hondartzako baloia sartzea bezala da. Baina batek ez badu amore baten, kanpoan geldituko gara. Futbola faktikoa izan da beti eta da herri honetan. Trevijano egin zen, beraiek ez molestatzegatik. Zelaia izorratzen genuela. Erakutsi dugu, planteamentu faltsua zela”, gaineratu du ordiziarrak.



*Jose Luis Castro
ordiziarrak, barru-barrutik
ezagutzen du Ordiziako
errugbiaren eta Trevijano
errugbi zelaiaren historia.*

Poztasunik handiena, jendea heztea

Noiztik zabilta errugbiaren munduan?

19 urterekin hasi nintzen jokatzeko. 28 urterekin jokatzeko utzi behar izan nion, ikusmeneko arazo batengatik. Hortik aurrera, beti zuzendaritzan, entrenatzaile lanean... ibili naiz. Jende asko ezagutu dut eta kirol honek lagun asko eman dizkit. Bi belaunaldiren aita naiz. 19 urterekin hasi nintzen, lau izango ginen. Baina ni barne-barnean sartu nintzen. Dinamika, jokoa, bere inguruan zegoen guztia... eta oraindik ere hori da. Kateatu egiten du.

Errugbia asko aldatu al da?

Taktikoki asko hobetu da. Esfortzu gutxiagorekin, askoz ere gehiago egiten da. Orain burua gehiago erabiltzen da.

Zer moduzko egoeran dago Ordiziako errugbia?

Ziurrenik, Euskadin, kirol egitura onena izango duena izango da Ordiziako errugbi taldea. Ez da bilbotarkeria. Garai batean, Santos Regil kadetea zenean, Espainiako kadete eta jubenil mailako selekzioak, Ordiziako 9 jokalarik zeuzkan. Titularrak. Espainiar Estatuko inongo taldek ezingo du hori esan, ziur nago. Santos Regil, Bartzelonako olinpiadetan, 1992an, medaila olinpikoa izan zen. Detalle horiek asko esan nahi dute.

Zein izan duzu urte hauetako poztasunik handiena?

Poztasunik handiena, askotan, ez da Espainiako txapel-dun izatea, finalen bat irabaztea... baizik eta, mutiko bat, kili-kolo hartu duzuna, lauzpabost urtera, ate horretatik, pertsona eginda ateratzea eta 10 urteren ondoren, esker-erak ematea. Jendea heztea, fisikoki eta emozionalki. Errugbian inori ez zaio esan, alde, ez duzu balio eta. Talde txapel-dunak egin ditugu, beste kirol batzuetan baztertutako jendearekin.



kutxa



*Lehenengo aldiz
Zegama-Aizkorri
mendi maratoian
parte hartuko du
gabiriarrak*

Andoni Aizpuru, iraupen luzeko kirol zalea

Egunero, pantaila txikitik gure etxetara sartzen den Andoni Aizpuru ETBeko eguraldi aurkezlea elurzale amorratua dela esatea ez da berria. Neguan, iraupen eskia egiten du eta aurtengo denboraldian ez du oso urrutira joan beharrik izan eskietan ibiltzeko. Korrika ere egiten du. Gutxi edo gehiago, urte guz-

tian ibiltzen da korrika. Behobia-Donostia maratoi erdia, 1985az geroztik, urtero egin du. Donostiako maratoia ere bost aldiz egin du. Igandean, maiatzaren 24an, erronka berria du gabiriarrak: lehenengo aldiz, mendi maratoi bat egingo du. Nola ez, Zegama-Aizkorri da hori. Iraupen luzeko kirol zalea da Andoni Aizpuru.


SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka: 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

**Mota guztietako
gida-baimenak**

Aiña Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76


ZEGAMA
OKINDEGIA
Eskuz egindako ogi naturala
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Oskarbi, Osina, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muno, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viana eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegui:** Inaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda denda, Centro 100. **Urretxu:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.

**Telefonoz hitzordua jar-
tzeko hitz egin genuene-
an, Andoni Aizpuru kirola-
ria ezagutu nahi genu-
ela esan genizun. Kirolaria
ezetz, kirol zalea zarela
erantzun zenigun. Ezber-
dintasuna azalduko al ze-
niguke?**

Kirolari esatea lotsa pixka bat ematen dit. Ez dakit kirolaria, kirolek bakarrik bizi dena ote den. Ni kirolaria baino gehiago, kirol zalea naiz. Kirola asko gustatzen zait, ikustea eta egitea.

**Kirola egiten duena be-
raz, ez da kirolaria?**

Bai, baina... Kirola egitea gustatzen zait eta behar ere behar dut. Nik beti esaten dut, gure lanean ez garela asko nekatzen. Mingaina pixka bat nekatzen zaigu baina. Neke handirik ez dugu izaten. Beraz, buruko neke edo estresa botatzeko oso ondo etortzen zaigu kirola egitea. Horregatik, kirol zalea naiz, baina kirolaria hitz potolo samarra da. Errespetu pixka bat ematen dit. Umetan ere izugarri gustatzen zitzaidan kirola, batez ere, korrika egitea. Krosean hasi nintzen. Baina 14-15 urterekin krezederak-edo izan nituen. Broman beti esaten dut, lesio batek nire karrera hautsi zuela. Beraz, geroztik, kirolzalea naiz. Kirola beti, neurrian. Lana daukat, familia daukat, hiru seme-alaben aita naiz... neurri batean egiten dut kirola.

**Neurri batean bai, baina, Zegama-Aizkorri mara-
toia jarri duzu helburu. Lehenengo aldia al duzu?**

Bai. Eta mendiko maratoi-
tan ere bai. Donostiako bost
maratoi egin ditut, 1993an
lehenengoa. Beti esan izan
da, edadean aurrera goazen
neurrian, fondoa hartzen
dela. Txikitan, krosean nen-
bilela, 12-13 urtekin, ez da-
kit ze Olinpiada zen or-
duan, Alemanian edo... ma-
ratoia ikusi nuen eta bukae-
ran, polako bat, patilla luze-
ekin, 42 kilometro eginda



“Maiatzeko ilberrian Aizkorrin elurra egitea ez da harritzekoa izango”

Eguraldia ere garrantzitsua izango da igandean.

Bitxikeria bat badago hor. Badakizue aurtengo udazken-neguan, ilberrietan elurra egiten ari dela eta hilaren 24a ilberria da. Pello Zabalak esan du, bere ustez, beste kolpetxo bat joko duela. Azkena izango da segurasko, baina ez da harritzekoa izango, maiatzeko ilberrian Aizkorri tontorrean, elurra egitea berriz. Eta egun horretan da maratokia. Antolatzaileei hurrengoan esan behar diet, karrera jartzerakoan, gutxienez, ilberria uzteko. Aurtan ikusiko dugu, baina ojo! Horixe bakarrik behar dugu.

Dena den, eguraldi txarra izaten denerako, antolatzaileek beste ibilbide bat ere izaten dute prestatuta.

Jartzen du bai ordezko ibilbide bat. Orduan ea eguraldi txarra egiten duen! (dio irribarrez) Aizkorri igo gabe gaitzerdi. Ez, ez, mentalizatuta nago egiteko. Parajea ezagututa, psikologikoki gogorrena, Sancti Spiritutik Aizkorrirakoa izango da. Izugarrizko aldapa dago. Oinez joateko ere bai.

Aurtengo neguan, entrenatzeko zer moduz ibili zarete? Eskiatzeko ondo, baina korrikarako?

Lokatza asko dago bai. Asteburuero eguraldi txarra egin du, hotza gainera. Ea maiatzeko ilberrikoa betetzen den.

gero, irribartsu, jendea agurtzen sartu zen. Maratoia horrela bukatzea zer izan behar duen galdetzen nion nire buruari. Buruan sartuta eduki izan dut beti maratokia. Iraupen luzeko karre-
rak gustatzen zaizkit, bai korrika eta bai eskian. Azken urteetan 90 kilometroko karrerak-eta egin ditut eskian.

Buruko nekea
arintzeko oso ondo
etortzen zait
kirola egitea.

Zegama-Aizkorri, luzeaz gain, gora-beheratsua ere bada.

Paraje horiek oso ondo eza-
gutzen ditut. Gabiritik, oso
gaztetatik, mendira joaten
ginen eta gero, 17-18 urte-
rekin, iraupen eskia egiten
hasi nintzen eta horra joa-
ten ginen asko. Zegamara
joan, handik Otzaurtera,
San Adrian igo eta Urbian

Iraupen eskiaren paradisuan

Iraupen eskian ere ibiltzen zara. Suedian eta Finlandia aldean ere ibilitakoa zara.

Bi alditan izan naiz. Suedian, Vasalppet iraupen eskiko karrierarik luzeena da. Jendetsuena ere bai. Duela hiru urte, Josu Iztuetaekin-eta ikustera joan ginen eta duela bi urte parte hartzera. Egun batean, 90 kilometro egiten dira. 16.000 parte hartzaile izan ginen. Oso polita da. Hemen-go Behobiaren antzekoa da, baina jakina, askoz ere luzeagoa. 90 kilometro eskiatzen asko da. Guk 10 ordu eta erdian egin genituen.

Iaz, berriz, Finlandian izan ginen, Rajalta Rajalle Hiith-to etapakako eski zeharkaldian. Errusiako mugatik atera eta Suediako mugaraino joaten da; Finlandia osoa zeharkatzen da. 450 kilometro 7 egunean. Hemendik Madrilara joango bagina bezala da. Egutero-egutero etapak egiten dira, baina ez da lasterketa. Oso polita izaten da. 400 lagun ateratzen dira, baina lau taldetan, egutero 100 lagu-

neko talde bat. Oso ondo antolatuta dago. Iraupen eskia gustatzen zaionarentzako paradisia da. Oso polita da. Oso ondo antolatuta, eta giro onean gainera. Gaur egun, lehiarako gogoa dagoela ikusten da. Nik ez dut hainbeste ikusten. Lehia baino gehiago, norbere buruari erronka jartzea da. Bakoitzak bere neurria hartu behar du kontuan eta horrela bukatu behar du. Finlandiakoak oso filosofia polita dauka, ez da lehiaketa bat.

Non ibiltzen zara iraupen eskian?

Elurra nahiko behean egiten duenean, Urkiolara joaten naiz. Iraupen eskiak polita hori dauka, etxe inguruan egin dezakegula. Urban askotan eskiatu dut aurtan. Aurtan oso sarri egin du elurra egin du eta. Ni elurrarekin oraindik ez naiz sekula aspertu. Arantzazutik gora elurra baldin bada, fenomeno. 18-19 urterekin erosi nituen nire lehenengo eskiak, Hendaian. Urbiara, askotan eskiatzera, larunbat eta igandetan joaten ginen.

eta asko ibili izan naiz. Oraindik ere ibiltzen naiz. Iraupen eskia egiten 25 urte daramazkit. Aurtan ere askotan joan naiz, elur asko izan dugu eta.

Iaz ere Donostiako maratokia egin nuen, Tolosako 14 orduko mendi martxa ere bai... Berria egunkaria hartu nuen eta Zegama-Aizkorrik izena emateko epea zela eta... duela bi urte ere izan nintzen ikusten baina oso gogorra zela iruditu zitzaidan. Oraindik ere oso gogorra izango dela iruditzen zait.

Baina nahiko ondo nengoela pentsatu nuen. Donostiako maratokia ondo egin nuen, iraupen eskian ere martxa bat egin nuen... kableak gurutzatu eta proba egitea pentsatu nuen. Ez dut uste askotan errepikatu-ko dudarik. Gero esango dizut. Aizkorri, Andraitx, Aratz... igota nago eta badakit hor zer dagoen. Probatu nahi dut, baina hori gogorra.

Gainera, oso jende gutxi izango gara. 400 lagun bakarrik atera daitezke.

Errepideko maratokia, mendikoa baino gogorragoa dela dio hainbat korrikalari.

Hori aditu izan dut bai.

Orain mendian nabil entrenatzen eta uste dut hankentzat-eta bigunagoa dela. Bidean entrenatzea gogorragoa da belaunentzat-eta. Baina ni pisutsua naiz eta aldapa gora... Behera oraingo, ondo moldatzen naiz. Gora, kiloak antzematen dira. Baina beno, goraka polikiago joango naiz.

Beti esaten dut Aizkorri ez dudala saltzeko eta ez dudala salduko sekula, baina egia da, Anboto eta bere ingurua, oso paraje polita dela.

Gero goitik behera saiatuko gara eusten eta ea bukatzen dugun. Ordu asko dira. Ono bukatzea da helburua. Badakit nahiko izorratuta bukatuko dudala, ez dakit zein denbora egingo dudan, 6-7 ordu. Baina itxuraz bukatu nahi dut, edozein modutan bukatzeak niretzako ez du balio. 42 kilometro zelaian ere oso gogorrak dira. Hor goian, oraindik ere gogoragoak.

Elorrioren bizita, non en-

trenatu duzu, Aizkorri aldean ala Anboto aldean?

Elorrioren bizi naiz, baina auzo batean eta etxetik bertatik mendira ateratzen naiz. Anbotora igo eta jaitsi... hemen inguruan entrenatzeko leku ona daukagu. Aizkorri beti izan da nire erreferentziako mendia. Begiratu eta San Adrian aldean elurra

nostian 16.000 lagun bakoitzak bere erritmoan joaten da. Baina Aizkorri, lehenengoak txistu batean joango dira eta gu atzetik lasai-lasai. Asko bakanduko gara, eta jendearen presioa handia izango da.

Zegama-Aizkorrik 'kate-goria' ematen al dio korrikalariari?

Ero puntu bat igual! Ausardia maila bai behintzat. Nik uste dut ausardi kontua dela. Ni nire buruari erronka jartzearen aldekoa naiz. Iaz, Finlandian, zazpi egun iraupen eskia egiten aritu ginen, Errusiako mugatik Suediako mugaraino, egutero 60 kilometro eskiatzen. Erronka moduan jartzea polita da. Baina horrek ez du esanahi beste bat baino gehiago zarenik. Gauza desberdinak probatzea gustatzen zait. Triatlloiak ere eginda dauzkate. Orain, modan jarri da eta mendiko maratokia egingo dut.

Kazetaritza lana egiteko asmorik ba al daukazu egun horretan?

Eneee! Nahikoa daukat, goizean jaiki, gosalduta, egin eta etxera bueltatzearekin.

Hurrengo erronka buruan al dabilkizu?

Ez, hurrengorik ez dago. Behobia seguraski egingo

dut, hori ez dut planteatu ere egiten ez egitea. Denbora markak eginda dauzkat. Behin Behobian 1h16' egin nuen eta orain marka pertsonala, beste urte bat gehiagoan ateratzea da.

Mendizale moduan, trekking bat egiteko ametsa daukat Nepal aldean. Zaharrek esaten duten bezala, ez nuke hil nahi horko mendiak ikusi gabe. Nahiko erronka da, entrenatuta joan behar da, altuera kontuak izaten direlako. Baina korrikan ez daukat beste erronkarik. Suediara itzuli nahi nuke, oso polita da eta. Askok ikasi genuen. Sekretutxoak badaude: argizaria emateko modua adibidez. Harrigarria da adineko jendea ikustea. Behobian, 60-70 urteko aitona-amonak aterako diren bezala da. Bakan batzuk ateratzen dira baina Suedian harrigarria da. Partehartzailen batez besteko adina, 42-45 urtekoa zen. 70-75 urteko jende asko zen eta guk baino lehenago bukatu, jakina. Suediako berriz egitea gustatuko litzaidake. Bestela ez daukat erronkarik. Adin honetan erronka da, korrika egiteko gaitasuna eta gogoia edukitzea da, eta gorputzak laguntzea. Ni momentuz ondo nabil. Mendiko karrera hauek esaten dute batez ere artikulazioentzako direla txarrrak. Udan egingo ditut 45 urte eta hortik aurrera suabe-suabe.



Behobia-Donostian, hutsik egin gabe

Behobia-Donostia lasterketan, hutsik egiten ez duen horietakoa omen zara.

1985ean parte hartu nuen lehenengo aldiz eta bi mila bat lagunek hartuko genuen parte. Urte batean gelditu naiz, joan gabe, lesioagatik. Aurten, uste dut, 18.000 lagunentzako dagoela lekua. Jendeak giroa sortzen du. Jende asko egoten da. Berrealde txarra badauka, baina jendeak jendea deitzen du.

Korrikalari askok diote, karrera politagoak asko daudela.

Niri Behobia gustatzen zait. Jende asko egoten da animatzen. Grosera ailegatzen zarenean, jendea txaloka... ni gainera orain ezaguna naiz eta nahiz eta izorratuxeago joan, jende aurrean itxura zaindu beharra daukat. Behobian denetik esaten didate: Euzkitze, Egaña, Goenkale...

ZAHARRA • BERRI IGELTSEKITZA ETA ERAIKUNTZA

A. Almeida

943 180 372

651 700 439

aiakoerrota@terra.es

ATAUN



Eraikuntzak

Gremioen koordinaketa

Erreforma orokorrak

Teilatua

Ikaskide

irakaskuntza eta pedagogia

**UDAKO MATRIKULA
ZABALIK!**

ESKOLA LAGUNTZA - TAILERRAK
UNIBERTSITATE MAILA
INFORMATIKA - MEKANOGRAFIA
IKASKETA TEKNIKAK
INGELERA

Joan Iturralde, 5 - Beasain
943 160 120 (arratsaldean)
www.ikaskide.net



Ordiziako errugbi talde kadete 1976. urtean

Trevijano zelaia egin aurretik 1976. urtean, Ordiziako errugbi talde kadeteak, Altamirako zelaian jokaturako partida hasieran ateratako argazkia da hau. Atletico San Sebastianen aurka jokatu eta 44-10 irabazi zuten ordiziarrek.

Zutik ezkerretik eskuinera: Mujika, Korta, Alvarez, Perez, Golmaio, Galparsoro, Alonso, Ruiz eta Huesa.

Pikotxean: Lekuona, Gartziandia, Ramirez, Calvo, Legorburu eta Garmendia.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

ERAKUSKETA IRAUNKORRA: 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimendu eta objektuen manipulazioa erabiliz.

PLANETARIUM BERRIA

Kupula osoan proiektatzen diren erresoluzio handiko irudi

Ikusgarriak: Asteburu eta jai egunetako saioak: 12:00 eusk., 13:00 gazt., 15:30 fran., 16:15 gazt., 17:00 eusk., 18:00 gazt.

Donostiatik zerura begira: Zuzeneko saioa.

Itsua izar begiekin: Ipuin animatu bat, non itsu bat eta tirano bat protagonista dituen.

Biziaren jatorria: Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa.

Kartoizko Suziriaren sekretua: Hurrei zuzenduta. BERRIA!

IKUSKIZUN ETA ANIMAZIOAK

Elektrizitate ikuskizuna: Ileak puntan jarriko dizkizun esperientzia.

Planetarium Txikia: 4-9 urte bitartekoek ere izarrak ikus ditzaten

Simulagailuak: Errusiar mendia eta tranbia gidatzailearekin disfrutatzeko aukera

Eta gainera: Segway-a, Fakirren ohea, 1,2,3...matemagia!!, sumendiak, esperimenduak, etab.



Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org

 kutxa

 www.kutxasocial.net

 Creativity and Innovation
GERTU European Year 2009
ENPRESA AHOLKULARIAK - ABOKATUAK
San Inazio, 5 - 20200 BEASAIN T: 943 16 21 92 F: 943 88 36 33
gertu@gertuasesores.com

 **MENDIZABAL**
abeltzaintza

Baserriko haragia salmenta zuzena
686 325 511- Juan Antonio
686 301 313- Maria Luisa
www.baserrikoharagia.com



Mendizabal Baserria
20.248-Arama (Gipuzkoa)



ALTAMIR

JATETXEA

Altamiran sukaldaritza maite dugu.
Gure plateren barne muina sasoiko
lehengaiak ardura bereziz elkartzean
datza...

hau, kontzeptu eta sentsazio berriak
ezagutu ditzazun egiten dugu...
zuk eta zure dastamenak hamaika
zapore eta ukituz goza dezazuen.

Altamirako kirolgunea
20240 Ordizia Gipuzkoa
T 685 794 755
altamira@igeri.net



faktore

BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJU

SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



Goierrri
lanbide eskola,
bost arrazoi
bete-bete
asmatzeko!

informa
zaitez!!

1. Aukera zabalena
2. Etorkizuneko
3. Enprekin elkarlanean
4. Zuretzat egina
5. Ikasteko eredu aurreratua

heziketa zikloak egiteko biderik onena